

**BADAKIZU
NOLA
KONTRATATU
ETXEKO ETA
ZAINZAKO
LANGILE BAT?**



Getxo
bizi ezazu



Getxo
bizi ezazu



**TRABAJADKAS
N* D* MESTICADAS**



MIGRAZIOZAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA
PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACION



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**Zure etxeko lanak egiten,
mendekotasuna duten
pertsonak, lehen haurtzaroa
eta beste batzuk zaintzen
laguntzen dizun pertsona
bat kontratatzeko, lege-
esparru bat dago, eta
errespetatu egin behar da,
ezagutzen ez baduzu ere.**



NAHITAEZKOA AL DA KONTRATU BAT EGITEA?

Lan-kontratua idatziz edo hitzez egin ahal izango da. Hala ere, kontratua idatziz egiten ez bada, lan-harremana mugagabea eta lanaldi osokoa izango da.

AURREKONTRATU BAT EGIN DAITEKE?

Aurrekontratu bat egin ahal zaio egoera administratibo irregularrean dagoen etxeko eta zaintzako langile bati, gizarte-sustraitzeagatik bizileku-baimena izapidetu ahal izateko baldintzak betetzen dituenean.



2

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

FAMILIA-ETXEKO ZERBITZUAREN LAN-HARREMAN BEREZIAN

- 1** Etxeko eta zaintzako langileek eskubideak dituzte, **beren administrazio-egoeratik aparte.**
- 2** Etxeko eta zaintzako langile batek **idatzizko lan-kontratua** izan behardu zerbitzua 4 aste baino gehiago luzatzen bada.
- 3** **Probaldia** ezin da 2 hilabete-tik gorakoa izan.
- 4** **Soldatak** lanbide arteko gutxienerako soldata (LGS) izan beharko du gutxienez.
- 5** Derrigorrezkoa da soldata **nomina edo ordainagiri** batekin ordaintzea.



3

Etxeko eta zaintzako langileak **familiaren etxean** istripuren bat izanez gero, lan-istripuztat hartuko da.

6

Lanaldia 40 lanordukoa da astean.

7

Asteko atsedenaldia, gutxienez, ondoz ondoko 36 ordukoa izango da, eta lanaldien arteko atsedena 12 ordukoa.

8

Oporrak egutegiko 30 egunekoak dira.

9

2022ko urriaren 1etik aurrera, etxeko eta zaintzako langilearen kontratuak langabeziagatiko kotizatzen du gizarte segurantzari, eta, beraz, **langabeziarako eskubidea** du.

10

AURREKOAZ GAIN...

BARNE-ERREGIMENEAN DAUDEN
ETXEKO ETA ZAINZAKO LANGI-
LEEK:

Egunean 2 ordu hartzeko eskubi-
dea dute **otordu nagusietarako**,
eta ordu horiek ez dira lan-
denbora gisa zenbatuko.

Gauean, atsedeen hartzeko eta
horretarako gela egokia izateko
eskubidea dute.

**Ezin izango da barne erregime-
nean dagoen etxe**ko eta **zaintzako
langile bat kaleratu** (eta, beraz, lan
egiten duen etxetik alde egitera
behartu) arratsaldeko 17:00etatik
hurrengo goizeko 08:00etara.

5

HALABER, INTERESGARRIA DA KONTUAN HARTZEA...

Emakume etorkinek interes handiagoa dute **legezko kontratua** izateko gizarte-laguntzak jasotzeko baino.

Emakume horietako gehienak oso **lan kualifikatuak** egiteko prestatuta daude, ez bakarrik etxeko oinarrizko lanak egiteko.

Familiei beren **lan- eta familia-erantzukizunak bateratzeko** aukera ematen dien lana egiten dute.

NON LOR DEZAKEZU INFORMAZIO GEHIAGO?

GETXOKO MIGRAZIOEN HARRERA ETA ARRETARAKO BULEGOA

- 📍 Jose Maria Chávarri Zuazo s/n,
48930 Getxo
 - ✉ oficinaacogida@getxo.eus
 - ☎ 944 66 01 52 - 747424287
-

MUJERES CON VOZ ELKARTEA

- 📍 Amezti 6, 1º 8, 48991 Getxo
 - ✉ asesoria@mujeresconvoz.com
 - ☎ 655 603 809
-

KOSMOPOLIS ELKARTEA

- 📍 Alangoeta 8, 48992 Getxo
 - ✉ kosmopolis@live.com
 - ☎ 946 85 21 03
-

TRABAJADORAS NO DOMESTICADAS

- 📍 Xakeespazioa (Bilbao la Vieja, 17)
- ✉ trabajadorasnodomesticadasbilbao@hotmail.com
- ☎ 689445668